

Ramiro Gonzálezek “Ikusten duzuna baino gehiago dago” kanpaina aurkeztu du, arabarrak hiri hondakinen kudeaketaz sentsibilizatzeko

Ingurumen eta Hirigintza Sailak sustatu du kanpaina eta Egibide irakaskuntza zentroko ikasleen eta irakasleen laguntza izan du, baita Har Eman proiektuko adimen desgaitasun psikikoa duten pertsonena ere

Gasteiz, 2021eko irailaren 3a. Ramiro González Arabako diputatu nagusiak kanpaina berritzaile bat aurkeztu du gaur, "Ikusten duzuna baino gehiago dago" lelopean. Kanpaina hori urteko azken hiruhilekoan egingo da, Arabako herritarrak hondakinak behar bezala kudeatzeko beharraz sentsibilizatzeko eta Europar Batasunak horri buruz ezarritako helburuak betetzen laguntzeko asmoarekin.

Hiriko edo etxeko hondakinek kalte handia eragiten diote ingurumenari, eta haien tratamendua gaizki kudeatzeak kalte larriak eragiten ditu, urak kutsatuz eta atmosferara gas metanoa isuriz; horrek berotegi efektuan eta klima aldaketan laguntzen du.

"Sortzen ditugun hondakinei beste modu batean begiratu behar diegu: zabor gisa ikusteari uzteko, eta konturatzeko birziklatu eta berrerabili daitezkeen baliabideak direla", azaldu du Ramiro Gonzálezek.

Ramiro Gonzálezek kanpainaren izaera berritzailea azpimarratu du, Euskadi mailan aitzindaria baita: "Aldundia garen aldetik, gizarte kohesioan lan egin beharra daukagu, eta kanpaina hau adibide bat da". Diputatu nagusiak ekonomia zirkularren aldeko apustuari ekin dio: "Beharrezkoa da erabiltzen ditugun baliabideak murriztea, natura mugatua baita, eta hondakin bakoitzaren atzean bigarren bizitza bat emateko aukera dagoelako."

Josean Galerak zuzentzen duen Ingurumen eta Hirigintza Sailak Egibide irakaskuntza zentroko irakasle eta ikasleen laguntza izan du kanpaina sortzeko, baita Har Eman proiektuarena ere, zeinaren helburua baita Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen sareko hainbat okupazio zentrotako desgaitasun psikikoa duten pertsonen inklusioa bultzatzea, eta udal eta kuadrilletako ingurumen teknikoena.

"Ikusten duzuna baino gehiago dago" leloarekin, Foru Aldundiak, gizartea hondakinen tratamendua hobetu beharraz kontzientziazteaz gain, desgaitasun psikikoa duten pertsonen gaitasunari balioa eman nahi dio eta kolektiboa benetan gizarteratzea lortu nahi du lurraldean.

Kanpaina egiteko, partekatutako eraikuntza prozesu bati jarraitu zaio, eta desgaitasun psikikoa duten pertsonen hainbat tailerretan parte hartu dute, eta haien gaitasuna, adimen emozionala eta sen ona jarri

dituzte. Datozen asteetan, ingurumenari buruzko prestakuntza jasoko dute Egibideko ikasle eta irakasleen eskutik, eta, ondoren, kanpainako mezuak elkarrekin helaraziko dizkiote Arabako gizarteari.

Kanpaina urteko azken hiruhilekoan garatuko da, eta Arabako hainbat udalerritatik bira ibiltari bat eginez hasiko da. Bira horretan, hondakinak murriztu, birziklatu eta berrerabiltzeko kontzientziazio lanegiak egingo dira. Desgaitasun psikikoa duten eta kanpainaren garapenean parte hartzen duten pertsonak izango dira, halaber, prestatzen ari diren ikus-entzunezkoen protagonistak, bai eta, Gabonak baino lehen, Gasteizen egingo den amaierako ekitaldi parte-hartzaile baten protagonistak ere.

Josean Galera Ingurumen Saileko foru diputatuak bi erronka nagusi aipatu ditu hondakinen kudeaketari dagokionez: "kalitateko gaikako bilketa modu erabakigarrian areagotzea, batez ere materia organikoarena, horixe baita zatirik handiena, eta gainerakoen egungo kudeaketa optimizatzea".

Arabak 133,9 mila tona hiri-hondakin sortu zituen iaz, aurreko urtean baino % 1 gutxiago; ondorioz, biztanle bakoitzeko sorrera 409 kilogramotik 401 kilogramora jaitsi da urteko, hau da, % 2 gutxiago. Ontzien bilketa % 7 handitu zen, 7,3 mila tonatik 7,9 mila tonara.

Galerak azpimarratu duenez, tamaina handiko hondakinen kudeaketa % 15 hobetzen ari den arren, Araban biltzen diren hondakinen % 35 soilik egiten da birziklatzeko edukiontzi selektiboetan, eta oraindik ez da lortzen Europar Batasunak ezarritako % 50eko helburua.

Felipe Ibarraranek ordezkatu du Har Eman proiektua, desgaitasun psikikoa duten pertsonekin lan egiten duena, eta adierazi du beharrezkoa dela "konbentzitzea eta ezagutza sortzea harreman esparruak dituen gizarte batean, non bakoitzak ahal duena ematen duen eta bakoitzak behar duena jasotzen duen".

Bestalde, Egibide Lanbide Heziketako zuzendariak, Xabier López de Santiagok, Foru Aldundiaren proiektuaren izaera berritzailea azpimarratu du, "hainbat heziketa ziklotako Lanbide Heziketako ikasleak inplikatu baititu, kanpaina baten diseinuaren benetako kasu batean lan egiteko aukera emanez".